



JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA - IDEIA GAKOAK

DEFINIZIOA (Estatu kideetako ministroen batzordearen CM/Rec(2010)1 gomendioa Europako Kontseiluaren *probation* arauetara buruz) ¹

Justizia errestauratiboa baieztapen batzuetan oinarritzen den printzipio eta praktika multzo bat da: a) delituari emandako erantzunak ordaindu egin behar du, ahal den neurrian, biktimak jasan duen kaltea; b) arau hausleak ulertu behar du bere jokaera ez dela onargarria izan eta ondorio erreal batzuk izan dituela biktimarentzat eta komunitatearentzat; c) arau hausleak beren ekintzaren erantzukizuna onar dezakete eta onartu behar dute; d) biktimiek aukera izan behar dute beren premiak adierazteko eta delitugileak kaltea ordaintzeko modu hoberearen zehaztapenean parte hartzeko; eta e) komunitateak prozesu horri ekarpena egiteko erantzukizuna du.

PRINTZIBIOAK (Justizia Errestauratiboaren Europako Foruma)

- Borondatez parte hartzea, adostasun informatuan oinarritua.
- Komunikazio zuzena eta benetakoa.
- Parte hartzaileen beharretara, gaitasunetara eta kulturara egokitzeko sortutako prozesuak.
- Parte hartzaileen beharrak berdin baloratzea, eginiko kaltearen gaineko erantzukizun aktiboa, lagundua, nabarmenduta.
- Bideratze multipartziala, balio judiziorik gabe. ²
- Elkarrizketaren garrantzia.
- Adostutako ekintzak era malguan eta ebaluatuan implementatzea.

¹ Termino honek erreferentzia egiten dio delitu baten egileari jarritako zigorra edo lege neurriak ingurune irekian betetzeari. Hainbat jarduera eta esku-hartze dira; besteak beste, gainbegiratzea, orientatzea eta laguntza ematea, arau hauslea gizartean integratzeko eta segurtasun kolektiboa sendotzeko (iturria: <https://rm.coe.int/1680a0223c>).

² Prozesuaren une bakoitzean alde desorekatuena edo ahulduena indartzeko aukera. Horrela, alde bat indartuta, oreka lortzen da alde guztiak prozesuan legitimatuta eta garrantzitsuak senti daitezzen, ekarpen bat egiteko eta erabakitzeko gaitasunarekin.

BALIOAK (Justizia Errestauratiboaren Europako Foruma)

- Justizia.
- Elkartasuna eta erantzukizuna.
- Giza duintasunaren errespetua.
- Egia.

Funtsezkoa da programa errestauratiboak beren balioetatik abiatuta garatzea, bakea lortzera, gatazkak konpontzera eta komunitatea eraikitzen bideratutako ikuspegitik. Gizarte hartzaileak eta, bereziki, operadore juridikoek eta politika kudeatzaileek balio horiek ez badituzte, ez da oinarri egokirik egongo eta erretorika hutsean geldituko den dena.

HAREN GARAPENERAKO OINARRIAK (2012/29/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, delituen biktimetarako eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauari buruzkoa)³

Nazio Batuen praktika egokien nazioarteko estandarrak errespetatuko dituzten programa errestauratiboak inplementatu eta garatzeko, baliabideak bideratu behar dira:

- Alorreko profesional guztien formakuntza espezializatura.
- Haien koordinaziora, funtsezko helburuak partekatuta.
- Haien garapenerako baldintza egokiak sortzera (espazio egokiak, etab.).
- Ebaluaziora.
- Gizarte hedapenera.

PROZESU ERRESTAURATIBOA⁴

Biktima eta arau hauslea (eta, hala badagokio, delituak erasandako komunitateko beste edozein pertsona) delituaren ondorioak kudeatzen eta konpontzen batera aritzen diren edozein prozesu, oro har bideratzaile baten laguntzaz. Prozesu errestauratiboan barruan sar daitezke bitartekaritza, konferentziak eta zirkuluak, besteak beste.

EMAITZA ERRESTAURATIBOA

Prozesu errestauratibo batean lortutako akordioa. Nolanahi ere, kontuan izanik justizia errestauratiboa funtsean prozesua dela, prozesua gogobetegarria izan daiteke berez, ordainari buruzko adostasuna lortu ez arren. Erantzunak eta programak barne hartzen ditu; hala nola ordainketa (materiala, prestaziozkoa, morala...), lehengoratzeko eta komunitatea zerbitzatzea, inplikaturako aldean behar eta erantzukizun indibidualei erantzuteko eta haien berrintegrazioa lortzeko.

³ Loteslea.

⁴ Ikus Nazio Batuen 2002ko printzipioak eta erakunde horren programa errestauratiboaren eskuliburuaren 2020ko bertsioa (https://www.unodc.org/documents/justice-and-prison-reform/20-01146_Handbook_on_Restorative_Justice_Programmes.pdf).